

Lehoiek ere Carré-ren gaitza

Tantzian Serengeti izeneko parke nazionalan 60 lehoi hil dira aurten; erreserbako herena, hain zuzen. Zakur gazteek izaten duten birus

Nola igaro ote da gaitza lehen aldiz lehoien espezierara? Eta zein animaliak kutsatu ditu parkeko lehoiak? Inguruko zakurren bat izan ote da? Max J.G. Appel birologoak birusa isolatu eta klonatu egin nahi du, mutanteren bat ote den erabakitzearren. Baliteke birusa beti hor egon izana eta azkenaldian mutazioaren batek gaitza eragin izana.



Tantzian Serengeti izeneko parke nazionalan 60 lehoi hil dira Carré-ren gaitzak jota aurten; erreserbako herena, hain zuzen.

bat da heriotza horien eragilea. Gaitzak jotako lehoia balantzaka hasten da mozkortuta baillegoen, aurpegiko nerbioak uzkuritu egiten zaizkio eta konbultsioak izaten ditu. Sintoma horiek, zakur eta otsoengan ere izaten dira Carré-ren gaitza dutenean, eta Serengetin egindako autopsietan egiaztatu egin da lehoiak gaitz horrek jota hil direla.

Zesio-maila atmosferan

PSN edo Babes eta Segurtasun Nuklearrerako Institutuaren arabera, atmosferan zesio 137 elementuak sortutako erradioaktibitate artifizialak azken hogeita hamabost urteotako mailarik txikiena du. Metro kubiko aireko 0,9 mikrobecquerelekoa da oraingo maila. Erradiazio nuklearra igortzen duen elementu artifizial hau batetik atmosferan arma nuklea-

rrekin egindako saiakuntzetatik eta bestetik Txernobilgo istriputik zabaldu da atmosferara. Urte-sasoia araberare, kontzentrazioa aldatu egiten da. Udan, hain zuzen, neguan baino sei edo zortzi aldiz txikiagoa izaten da kontzentrazioa.

Eguzkia eta ura

Cabo Verde-n eguzki-izpiez baliatuta ura ponpatzeko estazioa prestatu dute. Europako Batzordeak antolatutako plan bati esker muntatu ahal izan da ekipamendu fotovoltaikoez funtzionatzen duen estazio hau. Proiektu osoa Sahel lurraldeko bederatzi estatuetan horrelako 800 estazio eraikita osatuko da eta kostua 8.500 milioi pezetakoa (340 milioi liberakoa) izango da. Guztira 24.000 modulu fotovoltaiko ipiniko dira eta 1.200 kilowatte-

ko potentzia lortu ahal izango da. Estazio hauetan sortzen den elektrizitatea ura ponpatzeko, sendagai-entzat aire egokitua prestatzeko, eskolak argizatzeko eta abarretarako izango da.

Ginea Berriko aurkikuntzak

Ginea Berria munduko lekuri ezezagunenetakoa da. Irla bitan zatituta dago, alderdi bat Indonesiako estatuarena eta bestea Papua Ginea Berriarena delarik. Groenlandia alde batera utzita, munduko irlarik handiena da. 777.000 kilometro karratu ditu, eta erdialdean mendikatea

Cabo Verde-n eguzki-izpiez baliatuta ura ponpatzeko estazioa prestatu dute. Proiektu osoa Sahel lurraldeko bederatzi estatuetan horrelako 800 estazio eraikita osatuko da.





Azken hilabeteotan bi aurkikuntza garrantzitsu egin dira Ginea Berrian. Lehenengoa Patrice Franceschi esploratzaileak egin du, Irian-Jaya-n orain arte inork ikusi gabeko tribu bat topatu duelako. Beste aurkikuntza, zuhaitzetako hamargarren kanguru-espeziarena izan da.

Beste aurkikuntza, zuhaitzetako hamargarren kanguru-espeziarena izan da. Bertakoek bondezegu esaten diote eta 1,2 metro altu da. Ile zuri eta beltzak ditu eta hamabost bat kilo pisatzen ditu. Dani eta Moni izeneko tribukoentzat arbasoen ordezkaridira eta ez dituzte, ez jaten eta ez ehizatzen. Oso bizkorra ez denez gero, galtzeko arriskuan dela uste da. Izan ere, lurreko harrapakariak ugari dituzte inguruan. Gainera ez da ahaztu behar 1890. urtean erbi-kangurua ezkutatu zela, 1908.ean arratoi-kangurua eta 1924.ean Grey-ren walabia.

3,6 mila milioi pertsona soberan

handiak ere bai. 3.000 metrotik gorako mendiak ugari dira eta oihan tropikalez estalia dago. Horregatik da zaila, hain zuzen, bertako lurralde batzuetara heltzea. Dena dela, azken hilabeteotan bi aurkikuntza garrantzitsu egin dira bertan. Lehenengoa Patrice Franceschi esploratzaileak egin du, Irian-Jaya-n orain arte inork ikusi gabeko tribu bat topatu duelako. Haien etxeak, jantziak eta hizkuntza inork ez zituen ezagutzen orain arte.

Gaur egungo ugaltze-tasaren arabera, XXI. mendearen bukaeran Lurrean hamabi edo hamabost mila milioi biztanle izango direla kalkulatu dute. Hala ere, Cornell unibertsitateko ekologi irakasle den David Pimentel-ek dienez, munduan bi mila milioi pertsona izatea litzateke ideala. Gaur egun ordea, 5,6 mila milioi bizi gara gure planeta honetan. Pimentelek bere kalkuluak Lurrak dituen baliabideak kontutan hartuta egin ditu eta San Frantziskon Zientzien

Aurrerapenerako Amerikako Elkartearen urteko batzarrean aurkezteko parada izan du. Dena den, soberako 3,6 milioi biztanleei zer gertatuko litzaiekeen ez du adierazi.

Natura eta turismoa

Nazioarteko turismoaren zifrek gora egin dute azken urteotan. Azken kalkuluen arabera, 324 mila milioi dolarrekoa izatera heldu da eta nazioarteko trukean petrolioari aurrea hartu dio. Adituek diotenez, nazioarteko turismoaren % 5a da turismo ekologikoari dagokiona. Horri esker diru-iturri oparoa izaten dute mundu guztiko erreserba naturalek. UNESCOk "munduko ondaretzat" dauzkan 70 erreserbatan egindako inkestaren arabera, turismoa da bertako diru-iturri nagusia, nekazaritzaren eta abelazkun-

tzaren aurretik. Ekonomiariek oso datu bixiak atera dituzte. Afrikako ekialdeko lehoia, adibidez, batezbeste 27.000 dolarretan baloratu dute eta elefante-taldea 610.000 dolarretan. Dena dela, erreserba naturaletara turista gehiegi heltzen denean ingurugiroa kaltetu egiten da eta kontuz ibili beharra dago. Everest mendia, esaterako, munduko zabortegi altuena da eta Galapago irlak gero eta kaltetugoa daude.



Nazioarteko turismoaren zifrek gora egin dute azken urteotan. Nazioarteko trukean petrolioari aurrea hartu dio. Dena dela, erreserba naturaletara turista gehiegi heltzen denean ingurugiroa kaltetu egiten da eta kontuz ibili beharra dago.

